



2022-2023

Ikasturteko

Hezkuntza Ez-Formaleko

Programa



begoñazpi ikastola





Musika

Helburuak

Danok dogu musika adierazteko, sentitzeko eta entzuteko gaitasuna, hau da, maila desbardinetan bada be, garatu eta sustatu behar dan musikaltasuna. Lehen aldiz umea inguruagaz hartu-emonetan jartzen daben entzumen esperientziei ekiteko, ikasleen garapen integrarlari aukera emonez, hainbat metodo erabiltzen dabezan musika-eskolak emongo dira.

MAX Y MIA METODOA

Programa honen helburu nagusia, umearen garapenez gain, honek musikarekiko gaitasunaren hedapena be bada. Metodo hau, umeak bizi dauan momentua kontuan izanik, eboluzio-aldietan antolatutako metodoa da.

COMBO

Musika moderno edota orkestran antolaturiko taldeak dira. Honeek, ikasitakoa jolas zein modu dibertigarrian jarriko dabe martxan.

Informazio erabilgarria

ARAUAK

- Ikasleei emoten jaken materiala, hurrengo hilean kobratuko da.
- Prezioan ez da ez materialik ez musika-tresnarik sartuko.

HAUR HEZKUNTZA

- Taldeek gehienez hamar ikasle izango dabe.

LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH

- LH 3. mailatik aurrera eta DBHn, musika-tresna saioak bakar-kakoak dira,
- Musika-tresna jotzen aurrera egin eta hobetzeko, etxean astero errepasatu eta ikasi beharko da.
- Garrantzitsua da musika-tresna ekartzea baita klase-orduak behar dan moduan aprobetxatu eta honeei etekina ataratea be.
- Musika-tresnetan egun eta ordu aldaketak egin daitezke.
- Beharrezkoa izanez gero, mailakatze-frogak egingo dira.

Musika-tresnak

Musika-tresnak eta liburuak ordaindu egin beharko dira.

Lehen Hezkuntzan landuko diran musika-tresnak: zeharkako txirula, klarineta, saxofoia, txistua, pianoa, biolina, biolontxelo, gitarra klasikoa, akordeoia, perkusioa, tronboia eta tronpeta.

DBHn landuko diran musika-tresnak: zeharkako txirula, klarineta, saxofoia, txistua, pianoa, biolina, biolontxelo, gitarra klasikoa, akordeoia, perkusioa eta bateria, tronboia, tronpeta eta kantua.

**Ikastolatik kanpo musika-tresna ikasten eta maila egokia daben ikasleek, combo ikasteko matrikula egin ahal dabe. Musika-tresna eta combo, aparte kobratuko dira. Ikasleek, combo egin nahi bada-be musika-tresna egin beharko dabe. Musika-tresna bakarrik be ikasi ahal da.*

HAUR HEZKUNTZA

4-5 urte
MAX ETA MIA
METODOA

LEHEN HEZKUNTZA

1. maila MAX ETA MIA METODOA	2. maila MÉTODO MAX Y MIA	3. - 4. maila HIZKUNTZA MUSIKALA
+		+
ABESBATZA	BIRAKARIAK	MUSIKA-TRESNA

5. - 6. maila

AUKERA 1* HIZKUNTZA MUSIKALA + MUSIKA-TRESNA (ordu bat) + ABESBATZA + MUSIKA-TRESNA TALDEA	AUKERA 2 HIZKUNTZA MUSIKALA + MUSIKA-TRESNA (ordu erdi edo ordu bat)
---	--

DBH

1. - 2. - 3. - 4. maila

AUKERA 1 MUSIKA-TRESNA (ordu erdi edo ordu bat)	AUKERA 2 MUSIKA-TRESNA (ordu erdi edo ordu bat) + MUSIKA-TRESNA TALDEA**
--	--

*Aukera honetan izena emoteko, LH 3. eta 4. mailan Hezkuntza Ez-Formaleko klaseak emonda egin beharko dira.

** Azken hau aurrera eroan ahal izateko gitxieneko taldeak egin beharko dau.